

AHOLKULARITZAKO PROIEKTU-BURUA

LANPOSTUAREN ZEHAZTAPEN LABURRA

Kudeaketa-sistemak garatzen eta administratzen parte hartzea, Zuzendaritzaren esparruaren barruan.

Aantolaketa-proiektuak eta prozesuak hobetzeko proiektuak planifikatu, zuzendu, jarraipena egin, kontrolatu eta dinamizatzea.

EGINKIZUNEN AZALPEN ZEHATZA

-Premiak antzematen eta Zuzendaritzan landu behar diren planak eta proiektuak egiten parte hartzea.

-Antolaketaren inguruko hobekuntzei buruzko azterketak –Arlo funtzional bati edo batzuei buruzkoak edo Zuzendaritzaren osotasunari eragiten dioten unitateei buruzkoak– zuzendu, koordinatu eta gauzatzea plan baten arabera.

-Barneko Kudeaketa Kontrolari buruzko informazioa lortzeko sistemak diseinatzeko eta garatzeko ezagutza teknikoak ematea Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzari.

Barne-kudeaketari, Baliabide Orokorren eskumenekoak diren zerbitzuen funtzionamenduari, etorkizuneko aurreikuspenei edo egin behar diren hobekuntzei buruz Zuzendaritzak Arloari egiten dizkion eskaerei erantzuteko prozesuen konponbideak diseinatzen edo haiek aztertzen laguntzea.

-Zuzendaritzaren Barneko Kudeaketa Kontrolaren informazioa bildu eta aztertzea, bai dauden sistemei buruzkoa (EKEE, Kontratazio Kudeaketa, Aplikazio espezifikoak), bai gai jakin baterako «ex professo» bildumen bitartez.

-Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzako hainbat arloekin harremanak izatea antolaketa-hobekuntzen eta prozesuen edo tresnen inguruko premiak antzemandeko.

- Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzako Alorrekin eta Sailburuordetzako beste Zuzendaritza batzuetako zerbitzuekin harremanetan egotea proiektuak egiteko.

-Landu behar diren proiektuak garatzeko plangintzak egiten eta behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak aurreikusteko ez ezik dagozkion egutegiak ere egiten parte hartzea. Lantaldea zuzendu eta koordinatzea. Bezeroaren premiak –lan-metodoak hobetzeko buruzkoak nahiz eginkizunak automatizatzeari buruzkoak– antzemateko azterlan zehatzak egiten, laneko eraginkortasuna aztertzen eta kudeaketa-koadroak ezartzen eta abar parte hartzeaz gain, parte-hartze aktiboa izatea proiektua egikaritzeko faseetan.

- Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorraren Zuzendaritzak dituen prestakuntza-premiak antzematea.

-Barneko lanaren prozedurak, arauak eta sistemak berrikusi, hobetu eta eguneratzea

-Polizia Zuzendaritzek edo Alorrek eskatuta hasitako prozesuak hobetzeko eta aholkularitzako proiektuetan parte hartzea: kalitatea kudeatzeko sistemak.